

## AUZOLAN ESPERIENTZIAK

# Uribarrik nortasuna indartu nahi du elkarlanean

Uribarri Auzolanean taldeak Bilboko auzoko eragileak eta bizilagunak batu ditu. Auzolanean bertako identitatea indartu nahi dute, eta esparru desberdinetatik egiten den lanari itxura bateratua eman.

| MARTIN VICIOSO |

BILBOKO itsasadarraren ekialdeko auzoa da Uribarri. Gaur egun 14.000 biztanle bizi dira aldapaz jositako gunen onetan. Euskal Herriko beste hainbat tokitan bezala, garai batean ohikoa zen auzolana berreskuratzen saiatzen ari dira eta horretarako Uribarri Auzolanean gune komunitarioa sortu dute. Haien ustez, gizartearen egiturak norbanakoaren interesaren alde egiten du, komunitatea alde batera utziz. Egungo arazo askoren konponbidea elkarlana dela sinetsirik, auzotarrak eta eragileak batu dira, eguneroko erronkei aurre egiteko.

Proiektuak, batik bat, Uribarriren izaera indartzea du helburu. Esparru anitzetan ari ziren elkarte eta bizilagunek hartzen dute parte. Hala, urteetan haien espazioetan lanean ari diren eragileen batasuna lortu du taldeak. Besteak beste, Ttanttaka Euskara Taldea, Aletu Emakumeen Elkartea, eredu sozio-ekonomikoa aldatzearen alde egiten duen Uribarritzen eta Gure Etxea Auzo Elkartea daude atzean. Bizilagunek asanbladak egiten dituzte jarraitu beharreko ildoak zehazteko.

Ekintza bateratuak ere egiten dituzte. Esaterako, pasa den martxoaren 29an “Uribarri Ezagutu eta Gozatu” ekimena burutu zuten auzo identitatea sendotzeko. Goiza igaro zuten Uribarri zeharkatzen, eta gune esanguratsuenetan hitzaldiak eta erakusketak izan zituzten. Historia eta egunerokotasuna uztartuz, parte hartu zuten herritarrek euren auzoa hobeto ezagutzeko aukera izan zuten. Auzolanean abiatutako proiektuak ere aurkeztu zituzten.

### Gune bateratua lortzeko ametsa

Eragile eta bizilagunei esker, Uribarrin jarduera ugari izaten da urtean zehar. Hala ere, azpiegituren beharra sumatzen dute. Dioteenez, auzoko elkarte gehienek ez dute egoitzarik. Halaber, ekimenak estalian egin ahal izateko lekua behar dute. Zentro zibikoak ez



URIBARRI AUZOLANEAN

**“Uribarri Ezagutu eta Gozatu” egunean, auzoa zeharkatu eta gune esanguratsuetan hitzaldiak eta erakusketak egin zituzten, auzo identitatea sendotzeko asmoz.**

ditu herritarren beharrak asetzen. Izan ere, oso ordutegi hertsia du, eta asteburuetan itxita egoten da. Orain arte, ikastolak, Bizitegik edo auzoko beste elkarteek utzitako eraikinetan egin dituzte ekintzak, baina garbi dute ez dela egoera egonkorra eta espazio propioa behar dutela. Gainera, ez dute nahi elkarteentzat egoitza hutsa izaterik, erakusketak, musika eta antzerki entseguak, ikasteko gelak eta faltan botatzen dituzten beste hainbat egitas-morako lekua nahi dute.

Horregatik, Auzogunea izeneko proiektua jarri nahi izan zuten martxan. Matiko kalean hutsik zegoen Irazabal eraikina uzteko eskaera egin zioten Bilboko Udalari. Aurretik, 2012an, okupatzen ahalegindu ziren, baina kanporatuak izan ziren. Hortaz, eskaera formal egitea erabaki zuten, firmak jasoaz. Deustuko Gazte Lokalak lortu zuen hitzarmenaren gisakoa nahi zuten: Udalak eraikinararen kudeaketa Gazte Asanbladaren esku utzi zuen kasu horretan. Erantzuna bestelakoa izan da ordea: enpresa berrien eraketarako gunea zabaldu du Udalak bertan, bizilagunen eskaerei muzin eginez. ■

